

# XI. PREMIO SAN SEBASTIAN GIPUZKOA FILM COMMISSION SARIA 23 IRAILA SEPTIEMBRE 2022



San Sebastian – Gipuzkoa Film Commission bulegoaren (Donostiako Sustapenaren, Donostiako Udaleko Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren arteko bulegoa) helburu nagusia Donostian eta Gipuzkoan zinemagintzaren eta ikus-entzunezkoen sektorea bultzatu eta sustatzea da. Horretarako, gainera, Gipuzkoako Garapen Agentzien laguntza du.

San Sebastian – Gipuzkoa Film Commissionek aktiboki lan egiten du sektoreko eragileak identifikatzen, bai eta enpresa txiki eta ertainentzako eta bertako profesionalentzako laguntza-politikak abian jartzen ere. Honako hauek dira haien helburu nagusiak:

- Donostia eta Gipuzkoa sustatu eta bultzatzea, filmazioak eta argazki-saioak erakarriz eta horiek egitea erraztuz. Horrek asko erraztuko dio Donostia eta Gipuzkoari filmazioen kalitate eta kantitateak kontuan hartuz lehen ordenako helburua izaten, filmazioek eragin ekonomiko handia izaten baitute egiten diren lekuetan.
- Sektore zinematografikoa, digitala eta tokiko eta probintziako ikus-entzunezkoak sustatzea, erakarriko diren kanpoko filmaketak tokiko sektoreko enpresa, eragile eta erakundeekin lankidetzan aritu daitezen bultzatuz eta lan eginez.

Helburu horien esparruan, San Sebastian – Gipuzkoa Film Commissionek San Sebastian – Gipuzkoa Film Commission Sariaren hamaikagarren ediziorako deialdia egin du. Helburua ekoizpen horien eszenatoki bihurtzen diren hirietan negozio- eta enplegu-aukerak sortzen dituzten ikus-entzunezko ekoiztetxeen lana saritzea da.


## SAN SEBASTIAN - GIPUZKOA FILM COMMISSION SARIAREN XI. EDIZIOAREN OINARRIAK

### 1. Sariaren helburuak eta baldintza orokorrak

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren helburu nagusia ikus-entzunezko ekoiztetxeen lana goraiatzea da, beren filmaketekin ekoizpenen eszenatoki bihurtzen diren hirietan negozio eta enplegu aukerak sortzen baitituzte. Filmatu diren tokietako balio urbanistiko, paisajistiko, kultural eta sozialak hobekien islatzen dituzten fikziozko film luzeak saritzen dituzte.

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XI. edizioan parte hartzea doakoa da, eta ez du berez ekoiztetxeentzako inbertsio gehigarririk suposatzen. San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XI. edizioa honako lege-oinarriak («Lege-oinarriak») arautzen du. Parte-hartzaile guztiek, behin inskribatuta, Lege-oinarriak eta arauak onartu behar dituzte.

Era berean, San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XI. edizioaren antolatzaileek sariaren edizio hau edozein unetan atzeratzeko, aldatzeko edo bertan behera uzteko eskubidea izango dute. Kasu horietan, parte-hartzaile eta hautagaiek ez dute inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.



## 2. Lurralde-eremua, denbora-eremua, parte-hartzaileak eta parte hartzeko baldintzak.

### Lurralde-eremua

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XI. edizioa lurralde nazionalen garatu diren ekoiztetxe eta koprodukzioentzat izango da. Horretarako, lurralde nazionaltzat hartuko dira Iberiar Penintsula (Portugal izan ezik), Balear Uharteak, Kanariar Uharteak, Ceuta eta Melilla.

### Denbora-eremua

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XI. edizioa 2022ko maiatzaren hirugarren astetik aurrera egingo da. Aste horretatik aurrera irekiko da interesa duten ekoiztetxeek hautagaitzak aurkezteko epea. Saria 2022ko Donostiako Zinemaldiarekin batera emango da.

Hala eta guztiz ere, Sarian parte hartu nahi duten ekoiztetxeek 2022ko ekainaren 30era arte izango dute izena emateko epea.

Horretaz gain, San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XI. edizioaren antolatzaileak, komunikabide eta abisu egokiak erabiliz, edozein unetan parte hartzeko datak aldatzeko eskubidea izango du.

### Parte-hartzaileak eta parte hartzeko baldintzak

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sarirako fikziozko film luzeen proposamenak aurkezteko, ekoiztetxeek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Beren ekoizpen edo koprodukzioen zati bat lurralde nazionalen garatu duten ekoiztetxe nazionalak izatea. Ildo horretan, eta aurrekoarekin bat etorritik, ekoiztetxe nazionalak Oinarri hauetako «lurralde-eremua» atalean aipatzen diren lekuren batean eratuak izan beharko dira.
- Estatuko Film Commission baten laguntza egiaztatua izatea. Sari honen oinarrietako baldintzak bete ahal izateko, gutxienez, filmazioa burutu den lekuko edo tokietako Film Commissionek eskainitako zerbitzua erabili behar izan du.
- Ekoiztetxe bakoitzak gehienez 2 film luze aurkeztu ahal izango ditu.
- Ekoizpen data 2021eko ekainaren 30etik aurrera duten film luze guztiak aurkeztu ahal izango dira.
- Film luzeek 60 minututik gorako iraupena izan beharko dute.

## 3. Kontaktua eta Oinarriak argitaratzea

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XI. ediziorako hautagaitza aurkeztu nahi duten ekoiztetxeek Sari honi buruzko informazioa eskatu edo kontsultak egin ditzakete honako helbide elektroniko honen bidez:

- [info\\_filmcommission@donostia.eus](mailto:info_filmcommission@donostia.eus)

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XI. edizioaren Oinarriak San Sebastian - Gipuzkoa Film Commissionen web orrian, Festhome plataforman eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. Gainera, edozein pertsona fisiko edo juridikok eskatu ditzake.



#### 4. Izen-ematea eta filmen hautaketa

2022ko maiatzaren hirugarren astean irekiko da interesa duten ekoiztetxeek San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XI. ediziorako hautagaiak aurkezteko epea.

Sarian parte hartu nahi duten ekoiztetxeek 2022ko ekainaren 30era arte izango dute izena emateko epea.

Oinarri hauetako baldintzak betetzen dituzten ekoiztetxeek formalizatu beharko dituzte hautagai-zerrendak eta film luzeen inskripzioak edota ekoiztetxeen legezko ordezkariak (ahaldunek) egin ahalko dute lan hori, baldin eta behar besteko boterea dutela egiaztatzen badute.

Kandidatura guztiak eta inskripzioak honako plataforma honen bidez bakarrik egin ahal izango dira:

**<https://festhome.com/festival/premio-san-sebastian>**

Ekoiztetxe interesdunek aurkeztutako hautagaitzek/inskripzioek, gutxienez, honako hauek bete beharko dituzte:

- Izena emateko inprimakia betetzea. Bertan, besteak beste, ekoiztetxeari, haren ordezkariari eta film luzeari buruz eskatzen diren datu eta informazio guztiak bete behar dira.
- Erakundeak eska dezakeen eta Sari honetan garrantzitsua izan daitekeen edozein informazio osagarri ematea. Parte-hartzaileak eskatutako informazio gehigarria eman beharko du, gehienez ere 5 egun naturaleko epean, informazioa eskatu zitzaionetik zenbatzen hasita.
- Film luzearen filmazioan Film Commission baten laguntza izan zela egiaztatzen duen agiria aurkeztea, Oinarri hauetako bigarren atalean («Parte-hartzaileak eta baldintzak») adierazita dagoen bezala. Dokumentu hori aurkezten ez bada, film luzea ez da Sarirako hautagai bezala onartuko.

Hautagaitzak aurkeztu eta izena emateko epea amaituta, San Sebastian - Gipuzkoa Film Commissioneko antolatzaileek Hautaketa Batzorde bat deituko dute. Batzorde horrek aurkeztutako hautagaitza guztiak eta izena emandako film luzeak baloratuko ditu, eta 5 eta 8 hautagaitza arteko azken hautaketa egingo du, epaimahaiari helarazteko, behin betiko balora ditzan. Azken hautagai horien artean, Epaimahaiak San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren irabazlea aukeratu du.


San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XI. edizioaren antolatzaileek eskubidea izango dute oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen ez dituzten ekoiztetxe guztiak deskalkifikatzeko. Erakundeak eskubidea izango du, halaber, Donostia eta Gipuzkoaren aurkako informazio edo komunikazio faltsuak, gustu txarreko iruzkinak edo desegokiak jaulki ditzaketan ekoiztetxeak (edo horiek osatzen dituzten pertsonak) deskalkifikatzeko. Horretaz gain, eduki politikoa, erlijiosoa, arrazista, xenofoboa, sexista edo Gipuzkoako eta Donostiako irudiari kalte egin diezaiokkeen beste edozein gai ere zigortuko dira.

#### 5. Epaimahaia eta Saria

Epaimahaia 3 pertsonak osatuko dute (horietako batek presidente gisa jardungo du). Epaimahaiko kideek ez dute zer ikusirik izango San Sebastian - Gipuzkoa Film Commissionarekin. Pertsona horiek ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalak edo ikus-entzunezkoen edo zinematografiaren arloarekin lotura duten pertsonak izango dira, eta adierazi beharko dute ez dutela inolako interes pertsonalik edo komertzialik ekoiztetxe batek edo besteak irabazteko. Epaimahaia osatzen duten 3 pertsonetako batek interesik badu finalista izateko hautatua izan den ekoiztetxe batengan, berehala jakinarazi beharko die antolatzaileei, haiek erabaki dezaten zein diren hartu beharreko neurriak egokienak.

Epaimahaia osatuko duten 3 pertsonak San Sebastian Film Commissioneko arduradunek izendatuko dituzte.

Epaimahaiaren presidentek kalitatezko botoa izango du bi hautagaitza edo gehiago berdinduta badaude.



Epaimahaiak 2022ko uztailearen 20tik aurrera jasoko ditu aurreko laugarren atalean aipatzen den Hautaketa Batzordeak finalista gisa hautatutako hautagaitzak/film luzeak. Azken hautagaitzak jaso ondoren, Epaimahaiak hilabete eta erdi inguruko epea izango du 2022ko irailaren 23an iragarriko den ekoiztetxe/film luze irabazlea aukeratzeko.

Irabazlea aukeratzeko, epaimahaiak filmatu den lekuko edo tokietako balio urbanistiko, paisajistiko, kultural eta sozialak hobekien islatzen dituen fikziozko film luzea puntuatu, baloratu eta sarituko du.

## 6. Saria

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XI. edizioko irabazleak ZAZPI MILA EUROKO (7.000,00 €) saria izango du. Saria irabazi duen film luzea ekoizten duen enpresarentzat izango da.

Sariduna 2022ko irailaren 23an ezagutuko da, eta egun horretan bertan emango zaio saria, Donostiako 2022ko Zinemaldiarekin batera.

## 7. Sariaren zabaltzea

Produkzio-enpresak eta saritutako zuzendariak konpromisoa hartzen dute film luzearen komunikazio- eta irudi-politikan **San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XI. edizioa** aipatzeko. Sariaren logoa eta antolatzaileek saria eman ondoren adierazten dituzten gainerako baldintza gehigarriak ere aipatu beharko dituzte.

Aurreko betebeharrak hori hausten bada, San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren antolatzaileek saridunari eskatuko diote jasotako Saria itzultzeko.

## 8. Oinarrien interpretazioa

Sari honen deialdian parte hartzeak berekin dakar parte hartzen duten ekoiztetxeek, dagozkien ekoizpen- eta zuzendaritza-taldeek eta Film Commissionek sariaren oinarriak onartzea. Donostiako Sustapena, San Sebastian - Gipuzkoa Film Commissionen ordezkari gisa, oinarri hauei buruz interpretazioan eragina izan dezakeen edozein gai aldatzeko eskubidea du.


San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XI. edizioa Espainiako legediak arautzen du. Honen inguruan sortzen den edozein arazo edo eztabaidarako, Donostiako (Espainia) epaitegi eta auzitegiek izango dute eskumena, legez legokiokeen beste edozein foruri berariaz uko eginez.

## 9. Datuen babesa

Datuak babesteko indarreko araudian ezarritakoaren arabera, jakinarazten da Donostiako Udalak tratatuko dituela datu pertsonalak, eta tratamenduaren arduradun gisa jardungo duela. Informazio hori Donostiako Sustapena S.A.k kudeatuko du, tratamenduaren arduradun den aldetik.

Tratamenduaren helburua da izen-ematea tramitatzea eta San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission 2022 Sarian parte hartzea kudeatzea.

Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria DBEOren 6.1.b) artikulua da, tratamendua beharrezkoa da interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko (Sariaren oinarriak onartzea). Honela dio DBEOren 6.1.e) artikulua: tratamendua beharrezkoa da interes publikorako edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriena, eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.



Oinarri hauetan edo dagozkion eskaera-inprimakietan hala adierazten denean, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa ematea nahitaezkoa izango da, eta informazio hori ematen ez bada edo datu okerrak ematen badira, ezin izango da eskabidea kudeatu.

Zure datu pertsonalak Hautaketa Batzordeko kideei eta film luzeak baloratuko dituzten eta saria emango duten epaimahaikideei jakinarazi ahal izango zaizkie. Sarituak pertsona fisikoak badira eta prestazio ekonomikoa badago, banku-erakundeei datuak jakinaraztea aurreikusi da, ordainketa egiteko, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari edo kontabilitate-kontrolaren arloan eskumenak dituzten beste erakunde batzuei lege ezarritako betebeharrean oinarrituta.

Ez dago aurreikusita hirugarrenei datu gehiago ematea, legeak ez badu horretara behartzen, eta ez dago aurreikusita datuak nazioartean transferitzea.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar beste denbora gordeko dira. Artxibo eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Kaltetutako pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatze eskubideak erabili ahal izango dituzte, bai eta datuak babesteko indarreko araudian jasotako beste eskubide batzuk ere, hala dagokionean, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuan (Easo kalea 41, 20003 Donostia).

Zure eskubideak baliatzean behar bezala artatu ez bazaituzte, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Beato Tomás de Zumárraga kalea 71 - 3. Solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, alde zuzenetik eta nahi izanez gero, Datuak Babesteko Donostiako ordezkariarekin jar zaitezke harremanetan: [dbo@donostia.eus](mailto:dbo@donostia.eus).